

ETXAGOK AMA BEGIRA

2012KO APIRILA - 158. ZKIA



AURKIBIDEA

- 03 Kuboko IV. Futbolin Txapelketa
- 04 Diskofesta
- 05 IV. Txantxiku-joko Txapelketa Topalekuan
- 06 Saio didaktikoa: Bost Gehi Bat
- 07 Soto zerbitzua itxiko da.
- 08 Gaztemaniak Kontzertua
- 10 Kontzertua: Matxura + Herstura
- 12 Gazte Informazioa

AZKEN ORDUKOAK

GAZTE KULTUR JARDUERENTZAT DIRU LAGUNTZEN ESKAERAK

Gogoratu nahi dugu Apirilaren 16a arte zabalik jarraitzen duela Gazte Kultur Jarduerentzat Udalak ematen dituen diru-laguntzen eskaera egiteko epea. Disko bat grabatu nahi duzuela, edo liburu bat argitaratzea, edo laburmetrai bat errodatzea, edo hasi-berriak izaki ekipoa osatzeko laguntza behar duzuela? Ba egin eskaria, eta zuen eskaera aztertuko da.


Gogoratu, beraz, apirilaren 16 baino lehen pasa zaitezte Gazteleku sarrerako Gazte Informazio Puntutik, eta bertan emango dizuete egin behar duzenaren berri zehatza.

ETXAGOK AMA BEGIRA - 2012ko APIRILA - 158. zkia

KUBOKO IV. PING-PONG TXAPELKETA



Δpirilak 21, Zapatua, 17:00etan
Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte



Topalekuko egitaraua

IV. Txantxiku-Joko Txapelketa

Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte



**Apirilak 27
ostirala
18:30etan**

Topalekuko egitaraua

saio didaktikoa

BOST GENI BAT

taldearen eskutik

5+1 taldea aurtan sortu da Oñatiko Musika Eskolako bost ikaslek osatuta. Jon Igarzabal (gitarra), Ander Kortabarria (gitarra), Ander Varela (bajua), Julen (bateria) eta Aitor Osuna dira boskotea osatzen duten kideak, eta aurtengo ikasturtean ikasi duten guztia Gaztelekuko taula gainean erakutsiko dute Juanma Guereñu irakaslearen gidaritzapean. Hainbat estilo ezberdinetako (rock, pop, soul) artisten bertsioak egiten dituzte (Stevie Wonder, Nirvana, Eric Clapton, ...).

Maiatzak 5 Ostirala 18:30etan

SOTO ZERBITZUAK ATEAK ITXIKO DITU ASTE SANTU OSTEAN

Urtero bezala, Aste Santuaren ondoren amaitutzat joko dugu Gaztelekuan ere neguko denboraldia, eta honekin batera Soto zerbitzuak atek itxiko ditu. Eskerrikasko asteburu eta jaiegun guzti hauetan zerbitzuari etekina atera diozuenei, eta gogoratu herriko jaiak amaitu ondorengo asteburuan zabalduko dituela berriz atek Sotoak.

Beraz ez ahaztu, Apirilaren 15a izango dela Urrira bitartean Sotoaz gozatu ahal izango duzuen azken eguna.



ETXAGOK AMA BEGIRA - 2012ko APIRILA - 158. zkia

GAZTANAMIAK KONTZERTUA



RADIO
MOSKOW

(Story City, Iowa, AEB)



KAIMANLEON

(Oñati)

APIRILAK 20 OSTIRALA, 22:30 ETAN
OINATIKO GAZTELEKUAN

GAZTEINAMIAK KONTZERTUA

RADIO MOSKOW



Rockak, bluesak eta sikodeliak bat egiten dute lowako hirukote gazte honen zainetan. Gazteak, bai, baina beranoena atzean uzteko behar den guztia daukate.

KAIMANLEON

Show Business eta Potemkin taldeetako kideek osatuta, rock astunenaren aldera egin du laukoteak, eta euren debuta izango da gainera Gaztelekukoa. Mikel, Txalain, Alexis eta Lete erasora!



ETXAGOK AMA BEGIRA - 2012ko APIRILA - 158. zkia

KONTZERTUA

ONATIKO GAZTELEKUAN

APIRILAK 28, ZAPATUA, 22:00ETAN

MATXURA

HERSTURA



matxura.com - 656 751 399 - matxura01@gmail.com

KONTZERTUA

ONATIKO GAZTELEKUAN

APIRILAK 28, ZAPATUA, 22:00ETAN

MATXURN

Mikel Kazalis itzuli da, egitasmo berriarekin, baina euskal musikazaleentzat oso ezagunak diren aurpegiak lagun dituela: Fernando Sapo (Estricalla, Kuraia, Corazon Del Sapo), Aitor Abio (Pi.L.T), Txarly (Anestesia, Why Not?) eta Mikel bera (Negu Gorriak, Anestesia, Estigia, Kuraia, 2Kate, ...). Rock industrial gordin eta astunez eta erritmo elektroniko bortitzez betetako disko berria dakarte besapean, eta entzutekoaz gain, ikustekorik ere izango da Gaztelekuan. Punta-puntakoa, mutur-muturrekoa.

HERSTURA

ErROCKaldeko sototik atera den beste talde bat. Aspaldiko ezagunak genituen Sanlo Garage Brothers izenpean, eta orain, Herstura bezala birbataiatuta datozkigu disko eta guzti. Mikel Marco, Xabi Pico, Jagoba Martin eta Unai Pata dira Herstura, eta rock astuna da euren eremua, eta eremu horren barruan Dut, Lisboa edota Izaera taldeek egindako bidezidorretan barrena dabil laukotea, besteak beste. Mutrikuko AME Estudioetan grabatu dute 6 kantuko diskoa.



UDAKO OPORRALDIARI BEGIRA

Udako planak egiten ibiliko zarete zuetako asko dagoeneko. Ba jakizue Gazte Informazio Puntuan dituzuen aukera guztein informazioa emango dizuetela, bai eta dituzuen zalantzak argitzen lagunduko ere. Hala ere, hemen uzten dizuegu aurkitu dezakezuenaren aurrerapen txiki bat:

- Euskadiko Gazteak Lankidetzeta Programa (20-30 urte). Izen-emate epea: Martxoaren 31tik apirilaren 19ra.
- Auzolandegiak (+ 18 urte). Izen-emate epea: Apirilaren 24tik aurrera.
- Gazte oporraldiak (14-17 urte). Izen-emate epea: Apirilaren 16tik 24ra.

Hauetaz gain, badaude beste hainbat aukera ere (Eziko Udalekua, Baratze, Euskal Udalekuak,...), eta hauen berri zehatza ondoko web-gunean aurkituko duzue, eta baita bulegoan bertan ere:

- gipuzkoangazteria.net/uda (adin guztietako udalekuei buruzko informazioa)